



## Emakumeok eta gizonok batera askapenaren bidean

### On:Giz Elkartea

Ongiz Elkartea elkarre misto bat da, identitate anitzak bildu nahi dituen pertsona talde bat. Menderakuntza sistema patriarkalaren sexu-genero sistemak eragindako gizarte egitura desorekatu injustuari baldintzapenari iraulia ematean datza, bere helburu nagusia. 2007an sortutako elkartea da. Hasiera batean **gizonon deseraikitze maskulino sexistaren** lanari ekin zion, gizonon garapen pertsonalari eta kolektiboari berrikuspenerako eta birformulatzeko bide kritikoari zabaltzeaz gain. Mugimendu feministari eta maskulinistari zor die bere lanaren ardatza.

Bost urteetan zehar gizonekin lanean aritu ostean, bidelagun izan diren emakumeekin batera, eta komuneko etorkizun bati begira, emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboaren arloan ari da lanean. Nork bere identitatearen esanahiaren eta inplikazioen kontzientzia-hartzea du abiapuntua.

Patriarkatu kapitalistaren oinarri zapaltzaile sendoak kolokan jarri nahi ditu, gure egunerokoan eta gizarteratze arlo guztietan, beraien eragin deshumanizatzailea azaleratuz eta, era berean proposamen berri eta eraikitzaileak esakiniz. Helburu handinahiak bazter utzita, norbanakoaren boterean eta erantzukizunean jartzen du indarra. Geure munduan egoteko modua askeki eta ohartsuki aukeratzeko konfiantzan, pertsona orok gaitasun nahikoa dugulako horretarako eta gehiagorako.

Ezin uka, bide zoragarri eta zail honetan, nork bere zintzotasunean aurki dezakela askapenaren gakoak, jasotako gizarte, ekonomia, erlijio eta kultura baldintzapenak zalantzan jarritz, astinduz eta eraldatuz. Jaio ginenetik pertsonetik lehian heziak izan gara. Txikitatikako sozializazio bortitzak gure benetako izaeratik, asmoetatik eta nahietatik deskonektatu gaitu, bidegabeko

sistemak baloratzen dituen aurrez erabakitako ezaugarri material eta lorpenen indibidual zoroen kiribilera sartuz. Horra, hezkuntza sistema orokorrak ikasleen balorazio soilik ekoizlea (ez balore gizatiarra) kalifikazioetara murriztuz, salbuespenak salbuespen.

Ezin besterik esan, laneratze-prozesuei buruz. Pertsonok, berez, lanaren bidez gizarteari egin diezaiokegun ekarpena kontuan hartu ordez, nor bere kontsumo aukerak handitzeko moduan arreta jartzera bideratuta gaude. Bide honek mugarik ez du, beti lor dezakegu gehiago eta ez gara helduko inoiz eredu kapitalistak begi aurrean jartzen dizkigun idealetara. Honek asebetetze maila desitxuratzen du, bere norabide naturaletik desbideratuz eta helduezinak diren xedeek, geuk aurrera egiten dugun heinean, beraiek ere hainbesteko aurrerapausoa egiten dute eta.

On:giz Elkartean, kanpotik exijitzen zaizkigun lorpen materialista frontista eta indibidualistei muzin egiten saiatzen gara. Pertsona bakoitzak bere garapen pertsonalean aurrera egiteko, menderakuntzazko eraikitze sexistari iraulia emateko gaitasuna dauka. Edozein unetan eta edozein lekutan egin nahi dudana aukeratzeko erabakiaz jabetzeko, sistema patriarkal honen jerarkizazio desorekatu sexistaren eraisteari ekin beharra dago, emakume eta gizon zintzoago, bidezkoago, osoago, berdintasun zaleago eta askeagoak izango bagara.

Hau guztia, taldeetan lantzen dugu. **Taldea, aldaketa pertsonalari eusteko ezinbesteko tresna bihurtzen da.** Ni-ago izateko pertsona-talde abegikorraren konplizitatea, konpromisoa eta euskarria nire alde dauzkat, bestelako giza-harremanak posible direla sinesteko. Nor bere sexu bereko kideekin eta beste sexuetoako kideekin dituen baldintzapeneko harremanak eraldatu ahal ditu, barneratutako jokabide zapaltzaile, sexista edota hierarkikoei hautabidea alternatiba eskainiz.

Esan gabe doa, sexismoak eta menderakuntza maskulinoaren sistemak izan duen eragina gizonongan eta emakumeongan deseraikitze prozesuak desberdinak direla, baina sexu-genero sistemak eragindako baldintzapenarekiko zuzeneko esku-hartzean dautzala, emakumezkoak gizonetzkoak baino bazterkeria egoera gehiago eta handiagoak jasan ditugula. Badira mendeak, feminismoak emakumeok altxarazi gintuenetik, gizonok hamarkada batzuk besterik ez daramatzagun bitartean. Emakumeok zati luzea egin dugu askapenaren bide honetan; gizonok pauso batzuk besterik ez. Hala ere, elkarlanean aritzera behartuta gaude. Elkarrekin bizi gara eta elkarrekin bizi nahi dugu. Gero eta pertsona gehiago ari dira egoera honen kontzientzia hartzen, pertsonon eta kolektiboen indarra aldarrikatuz.

Pozik gaude gure aurrapausoei begiratzen diegunean. 50 gizonok eta 32 emakumeok osatutako giza talde honek, gizonon eta emakumeon aldaketa pertsonalean indarrak jartzen jarraitu nahi du, maila kolektiboan jokatzeko eta eragiteko. Elkarre barruko lan honek, kanpoko parte-hartzeetan du isla, gure kokapen eraitsiaren eraginak, erreferentziak eta ikuspuntuak gizarte prozedura aldaketa guztietan eraginkorrago bilakatzen gaituztelarik.

Ez gara gauzak hobetzeko zain egongo gu geu itxaropentsu bizitzen hasteko, aritzeko eta bizitzeko. Hau erosokeria litzateke, konformismoa. Gu gara itxaropena, eta barrutik kanpora isuri eta kutsatzen gabiltza. Eta honela segi nahi dugu.

**On:giz Elkarrea**

<http://www.ongiz.com/eu/inicio/>